arrigorriaga
UDALA - AYUNTAMIENTO

arrigorriaga.eus

Arrigorriaga kantari

AURKIBIDEA

564..... 26

A

ABERRIAREN MUGAK 4
ABERTZALEA JAIO NAIZ..... 23
AGUR XIBERUA 21
AGURE ZAHAR..... 4
AITA SEMEAK..... 4
AITORMENA 26
AMETS, AMETS EGIN 10
ARBOLA GAINEAN..... 13
ATARRATZEKO GAZTELUKO KANTUA..... 4
AZKEN AGURRAREN NEGARRA..7
AZKEN DANTZA 14

B

BADIRA HIRU ASTE..... 25
BAGARE..... 5
BALDORBA 9
BARATZE BAT 17
BASERRIKO ATE ZABALAK..... 10
BATASUNAREN LILIA 19
BEGIAK PARREZ-PARREZ 10
BEHIN BATEAN LOIOLAN 6
BESTE BATEKILAN..... 13
BIZIRIK GAUDELAKO 25
BIZKAIA MAITE..... 5

D

De TREBILLEN AZKEN HITZAK..19

E

EGIDXE DA..... 23
EPERRAK..... 8
ERRIBERA 14
EUSKAL FAUNA..... 23
EUSKAL HERRIAN Euskaraz..... 5
EUSKALDUNEK MUNDUAN..... 16
EUSKALHERRIA..... 20
EZ DUT BILATZEN..... 17
EZ, EZ DUT NAHI 6

G

GALDETZEN..... 24
GAZTENA BIL, GAZTENA JAN.. 18
GOGOAREN BAITAN 6
GOIZEAN GOIZIK 24
GORA TA GORA BETI 14
GREZIAKO ITSASONTZIA 16
GUK EUSKARAZ..... 15
GURE ESKU DAGO..... 24
GURE LEKUKOTASUNA..... 15
GURE ZORTEA..... 12

H

HABANERA..... 10
HAMABOST 16 URTE..... 25
HEMEN GAUDE..... 4

I

IBAINETAKO KANTA..... 17
IBILIKO GERA..... 18
IKASTOLETAKO ERRESERKIA.. 19
ILARGIA..... 16
ILUNTZEAN 18
IRRIA..... 19
IRTENBIDERIK EZ ZEN 13
ITSASOARI BEGIRA..... 21
ITURINGO AROTZA..... 22
ITXASO ONDOAN..... 7

J

JAUN BARUAK..... 7

K

KALERA, KALERA..... 11
KANTUZ..... 24
KAPITALISMOAK..... 15
KOBLAKARI..... 23
KUPELA 16

L

LABEXOMORRO..... 23
LANGABEAK 25
LANTEGIKO HAMAR MANDAMENDUAK..... 13
LAU TEILATU..... 6
LILI BAT IKUSI DUT..... 22
LORETXOA..... 15
LORIAK UDAN IHINTZA BEZELA.20

M

MAITATZEN ZAITUDALAKO ... 17
MAITE ZAITUT..... 22
MAITIAK GALDEGIN ZAUTAN. 19
MARIA SOLT ETA KASTERO 9
MARKOSEN TXARRIXE..... 20
MATALAZ..... 11
MENDIAN GORA 18
MUNDURAT 22
MUÑAGORRIREN BERTSOAK.. 11

N

NARAMA..... 16
NERE HERRIKO NESKATXA MAITE 5
NIGARRA BEGIAN 14
NON GERATZEN DEN DENBORA 21
NORA GOAZ..... 11
NULA BIZI, HALA KANTA..... 9

O

OI AMA ESKUAL HERRI 8
OI KANTA BERRI 20

P

PASAIAKO HERRITIK 9
PERTTOLI..... 12
PRIMADERAKO LILIAK..... 15

S

SALAMANKARA..... 8
SAN SIMON 8

T

TELEBIXTA 12
TOPA DAGIGUN..... 20
TRISTE BIZI NAIZ ETA 6
TXAKURRAK 18
TXALAPARTA..... 8
TXORIA TXORI 25

U

UDABERRIA..... 7
URTXINTXAK..... 10

X

XALBADORREN HERIOTZEAN .. 8

Z

ZAZPIAK OIHAL BATETIK..... 22
ZENBAT GARA 18

AGURE ZAHAR
L Llach/X. Lete/G. Knörr

Agure zahar batek zion
bere etxe aurrean
goizean goiz lantokira
irtetzen nintzanean:
Ez al dek, gazte, ikusten gure
etxola zein dan?
desegiten ez badugu,
bertan galduko gera.

Baina guztiok batera
saiatu hura botatzera,
usteltzen hasia dago-ta,
laister eroriko da.
Hik bultza gogor hortikan,
ta bultza nik hemendikan,
ikusiko dek nola-nola
laister eroriko dan.

Baina denbora badoa,
nekea zaigu hasi,
eskuak zartatu zaizkit,
eta indarrak utzi.
Usteltzen badago ere,
karga badu oraindik,
berriz arnasa hartzeko
esaigun elkarrekin:
Baina guztiok batera
saiatu hura botatzera...

Agure zaharra falta da
gure etxe ondotik,
haize txar batek hartu ta
eraman du hemendik.
Haur batzuk ikusten ditut
eta inguraturik,
aitona zaharraren kanta
nahi diet erakutsi:

Baina guztiok batera
saiatu hura botatzera...

AITA SEMEAK
Mikel Zarate

Aita semeak tabernan
daude, ama-alabak
jokoan. (2)

Berriz ikusi beharko dugu,
behi gizena auzoan,
berriro ere ez da faltako trapu
zaharrik kakoan.

Eta lapurrek ohostu dute guk
gendukana etxean,
eta gu gaude erdi biluzik beti
iñoren menpean.

Hondamendia gertatu zaigu
Geure etxean horrela
Guztiok bizi nahi dugu baina
Nola biziko beztela?

Geurea dugu erru guztia,
geurea dugu osoan,
ez iñori ba errua bota Euskal
Herria hiltzean.

Baina gaztea naiz eta daukat
etorkizuna eskuan,
ez zaigu hilgo Euskal Herria
ni bizi naizen artean.

HEMEN GAUDE
J. Sarrionaindia/Ken Zazpi

Agian hasieran bertan
ekibokatu ginen
munduraaa euskaldun sortzean
eta gero, gero ez genuen
iraultzaren borrokatik
apartatzeeen,
apartatzen jakin

esna-kantu bat abestu genion
sehaska hutsari,
eta goiz batez El Puertoko
gartzelan,
esnatu ginen

maite genituen gauzengatik
erori ginen preso,
baina gure maitasuna
oraindik
ez dago preso

zorionez edo zorigaitzez,
anitz ekibokatu
ekarriii, ekarri gintuzten
deserriko azken ipurdi hontan
bizi edo hiltzera.
eta bizi, hestu, ia mirari,
gainbizi gara

eta bizitzaaa ez da guretzat
egundo izango,
lehen zen bezalakoa
harrezkero

maite genituen.....(bis)

ABERRIAREN MUGAK
Joserra Garcia/T. Artola

Nire aberria lurra bezain
zaharra da
baina ez da lurra bakarrik
haizeak bezala
inguratzen nau eta
lotzen, askatzen nauelarik.
Nire aberria suaren antzekoa da
beti bera, berria beti
epeltzen nau
kanpoan hotz dagoenean
ta erretzen ere badaki

Aberriaren mugak,
euskarenak
gure baitan daude
gehienak
euskara zabalduaz lau
haizeetara
zabalago egiten gara.

Nire aberria harrizko herria da
hitzezkoa eta hitzekoa
altzairuzko txakolin,
ardo zurezkoa
eta hondar anonimoa.
Nire aberria burdin bihurria da
oroimenean arindua
itsaslaminen baten
herdoilezko kantu
etorkizunez fosildua.

Aberriaren mugak.....(bis)

ATARRATZEKO GAZTELUKO KANTUA
Herrikoa

Ozaze Jaurgainian
bi zitroin doratü
Atarratzeko Jaunak
bata dü galdatü;
üken dü arrapostü
eztirela hüntü,
hünturik direnian
batto ukenen dü.

Portaliala juan zite,
ahizpa maitia,
ingoiti horra düzü Atarratzeko
Jauna,
otoi erran izozü
ni eri nizala,
zazpi egun hoietan
oihan nintzala.

Klara, zuaza orai
salako leihora,
ipar-ala egua denez jakitera,
iparra baldin bada
goraintzi Salari,
ene korpitzaren txerka
jin dadila sarri.

Ama, juanen gira
oro elkarrekin,
etxerat jinen zira
xangri handireki,
bihotza kargatürik,
begiak bustirik,
eta züre alaba
tunban ehortzirik.

Ama, saldu naüzü
biga bat bezala,
bai eta desterratü,
oi Españiala,
aita bizi üken banü,
ama zü bezala
enündüzün ezkünturen
Atarratzeko salala.

BAGARE
Bittor Kapanaga/G. Mendibil

Araban bagare
Gipuzkun bagera
Xiberun bagire
ta Bizkaian bagara
Baita ere, Lapurdi 'ta
Nafarran.

Guziok gara eskualdun guziok
anaiak gara
Nahiz eta hitz ezberdinez
bat bera dugu hizkera.

Herri bat dugu osatzen
eta gure zabarkeriz
ez daigun utzi hondatzen.
Bagare, bagera, bagire,
bagara
Euskadi askatzeko
oraintxe dugu aukera. (bis)

BIZKAIA MAITE
J.A. Irigarai/B. Lertxundi

Bizkaia maite
atzo goizean ikusi zindudan
soineko zuriz jantzia
buruan orlegi bihotzean sua.

Nere gogoaren
ertzatik pasatzen
zure usain gozoa lara
amodioa itsasoa,
ene baitan sartzen.

Atzo goizean entzun nuen
zure berbaren oihartzuna,
zure kantaren fereka,
bihotzean kilika
eta ohiartzunaren
haunditasunean
murgilduz joan nintzen
jausika, hegaka.

Bart arratsean
arbasoen baratzaren ondoan
bertsotan eta dantzan
lotu zinen alai
piper eta gatza.

Bizkaia maite atzo goizean
ikusi zindudan
soineko zuriz jantzia
buruan orlegi bihotzean sua.

Olerakari
penatuaren gozo eta mina
amodio eta kanta zure berba
leun,
zure gatzaren bizia,
zure burdinaren
goria dira gaur
neretzat aterbe.

Bizkaia maite atzo goizean
ikusi zindudan
soineko zuriz jantzia
buruan orlegi bihotzean sua,
lirain, sendo, eder.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
Xabier Amuriza/Oskorri

Euskal Herrian euskaraz nahi
dugu hitz eta jolas
lan eta bizi euskaraz eta
hortara goaz.
Ba da garaia
noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

Zabal bideak eta aireak
gure hizkuntzak har dezan
arnas.
Ba da garaia
noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskaraz
hitz egiterik ez ba da
bota dezagun demokrazia
txerri askara.
Geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.
Hizkuntza gabe esaidazue
nola irtengo naizen plazara?
Geure arima hiltzen usteko
bezain odolgalduak ez gara.

Euskal Herri euskalduna
irabazteko eguna
pazientzia erre aurretik behar
duguna.

Ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?

Zer Euskal Herri litzake bere
hizkuntza ere galtzen duena?
Ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?

NERE HERRIKO NESKATXA MAITE
B. Lertxundi

Nere herriko neskatxa maite
ahozko lorez
zaitut gaur laztantzen
itsaso garden,
lur gozoko landare,
kresalaren usain,
zeru kolore
nere bihotzaren
taupaden hotsez
zure grazia dut kantatzen.

Bihotz minberen egunsentia
herri sufrituaren lamia
ipuin zaharren
piper eta eztia
erreka garbien kantu bitxia
udazken lizunez
zaude jantzia
izar zerutarren irria.

Lanbro artetik itsas geldira
leunki zoazen txori airosa
amodiozko
sentipenaren hatsa
zure ezpainetan loratuz doa
goizeko ihintzetan
belardi zera
eguzkitan zilar dizdira.

EZ, EZ DUT NAHI
Julen Lekuona

Ez, ez dut nahi
ez, ez, ez,
ez, holako zibilizaziorik.

Poliziak nun nahitik
zerbait egitean
pentsatu arazi nahi
makilen artean.
Iduri gu gerala kaiola batean
jarritako txoriak
fusilen menpean.

Ez, ez dut nahi...

Kaiolaren adarrak
ditugu alboan
eskuindarrek eskua
zabaldu justuan.
Zigor indarren menpe,
tiroak gogoan,
horrela bizitzerik ez dago
munduan.

Ez, ez dut nahi...

Horregatik ez dut nahi
Gizonen kutsurik
Zibilizazioaren
Sasi jaungoikorik
Libre nahi dut bihotzez,
Libre loturetik,
Basurdearen giza
Hortzak estuturik

Ez, ez dut nahi...

LAU TEILATU
Itoiz

Hemen gaude
ta poztutzen naiz
ta zihur zure aita ere bai.
Ta zer ondo, zelan dijoa
zure bufanda txuria.

Lau teilatu gainean,
ilargia erdian,
eta zu, gorutz begira.
Zure kea eskuetan,
putzara batekin putz.
Neregana etorriko da
ta berriz izango gara
zoriontzu
edozein herriko jaietan.

Goxo, goxo, kanta egin nazu
Benitoren Maria Solt.
Ez negarrik egin,
txuri zaude ta malkoak
zure kolorea kentzen dute

Felix, felix bihar
berriz izango gara
txanpan apur batekin.
Diru gabe baina
izarrak gurekin daude
piano baten soinuaz.

BEHIN BATEAN LOIOLAN
Bilintx/J. Denver/ Egan

Behin batean, Loiolan,
erromerian zan.
Hantxen ikusi nuen
neskatxa bat plazan
txoria baino ere
ariñago dantzan.
Huraxe bai polita,
han polita ba zan!

Esan nion desio
senti nuben gisan,
harrekin hizketa bat
nahi nubela izan.
Erantzun ziran ezik
atsegin har nezan
adituko zirala
zer nahi nion esan.

Arkitu ginanian
inor gabe jiran,
koloriak gorritu
harazi zizkidan.
Kontatuko dizutet
guztia segidan,
zer esan nion eta
zer erantzun zidan.

-Dama polita zera
polita guztiz, ai!
baiñan alare zaude
oraindik ezkongai.
Ezkon gaitezen biok!
Esan zaidazu bai!
-Ni zurekin eskondu?
Ni zurekin? Ja, jai!

TRISTE BIZI NAIZ ETA
Bilintx

Triste bizi naiz eta
hilko banintz hobe,
badauzkat bihotzian,
zenbait atsegabe.
Maite bat maitatzen det,
bainan haren jabe,
sekulan izaiteko
esperantzik gabe.

Bihotz baten lekuan
mila banintuzke,
guziak zuretako
izango litezke.
Bainan mila lekuan
bat bertzerik ez det
har zazu bai maitia,
bat hau mila orde.

Neure maite pollita
nola zeran bizi?
zortzi egun hauetan,
ez zaitut ikusi
uste det zabiltzala,
nigandik igesi
ez didazu emaiten
atsegabe gutxi.

Nere bihotz gaixua
Penatua dago,
Ezin egon liteke
Hain penatuago.
Pasatzen ditudala
Aspaldian nago
Egunak triste eta
Gauak tristeago.

GOGOAREN BAITAN
A. Duhalde/J. Hiatt

Erabaki nuen,
tinko ta fermuki,
Es zitzaidala ertatuko,
Maitasun saretan
ez nintzela berriz
Uste gabean eroriko.

Bi begi izpitxu,
irripar ezti bat
Izan dira nere galtzaile,
Geroztik hor nabil
arantzetan dantzan,
Ezinezko amets sortzaile.

Urresko txanpon bat
eman gogo nuke
Sorgin bat bilaka banedi,
Ezina eginkor aldatzeko aina
Gezurra bihurtzeko egi.

Zer den ona edo
zer ote den txarra
Jakin beharko nukelarik
Sumendi gainean
erretzen ari naiz
Ba al dago irtenbiderik

Zu hor zaude,
dantzan, jauzitan,
Zer debru bada
pasatzen zait
gogoaren baitan (bis)

Geroak zer dakar,
ez dut pentsatu nahi,
Uneak nahi ditut bizi.
Lau egun dira ta
bi omen lanotsu
Galtzera ez ditut nahi utzi.

Hitzaren jokoan,
itxura emanez,
Gorde nahiko nuke dena.
Biluzia nauzu izan zarelako,
Egoera hunen sormena.
Zu hor zaude.....(bis)

JAUN BARUAK
Beñat Mardo/B. Lertxundi

jaun baruak aspaldin xederak
hedatu zutin
xoriek eijer bat
hatzaman duzu
paubeko seroren komenti
orai harekin biziren duzu
aspaldian gogun beintzin
aspaldian gogun beintzin

xedera balitz halako
merkatietan saltzeko
ziberuako aitunen semek eros
litzazkie oro
halako txori eijertto zunbaiten
hatzamaiteko

igaran apiliraren buruan,
armadaren erdian
zuntudan bihotzian,
armak oro eskian:
present espiritian,
manka besuen artian

jauna maite banaizu
erraiten duzun besala
kita ezazu, kita ezazu
erregeren zerbitxua
eta maita herria,
uken dezadan plazera

UDABERRIA
Herrikoa/Urretxindorrak

udaberria datorrenian
mutil gazteak alaitu
hainbat neskatza
dabiltzanean
mutil zaharren atzean

uda erdian alkartu eta
beti loturik egonik
askatasuna aspaldi galduta
bere menpean egonik

negu gorriaren otsakin
basterrik bila ezinka
txikito lakain bat ezin edanik
etxe barruan sartuta.

ITXASO ONDOAN
M. Pagola/Pantxoa ta Peio

itxaso ondoan
uhainer musuka
ta mendi gainetan
zerurat otoizka
hor euskal herria
ari da galdezka
euskaldun guziek
dezagun besarka

maite duten semek
dezátela tinka
lehengoen hitza
hartan berriz finka
oi euskaldun seme,
ez maita erdizka
bainan gora kanta
gure errepika

idek ditzagun begiak
zabal bihotz hertxiak
eta ikus zoin amultsua dagon
euskal herria

euskaldun semeak
euskera badaki
erdarean ere trebe da polliki
gizon jakintsuna
hor bada ageri
horra euskalduna
nausi ainitzeri

etorriko dea bazko-berri kari
bere gaintasuna
euskal herriari
oi entzule maite,
ihardetsak huni
bihare euskaldun
nahi duka bizi

AZKEN AGURRAREN NEGARRA
Gorka Knörr

nora zoaz eskual semea,
arma hori eskutan?
armen hartzera deitzen naute
frantsen aldera. (bis)

eskualerritik urrunduz,
ta atzerrira joanak,
a ze negarra entzunen duzu
eskualerrietan! (bis)

morts pour la patrie,(bis)
eskuara baizik
etzakiten haiek,
morts pour la patrie.

gure historian zehar
zenbat malko ta ezbehar!
zenbat malko ta ezbehar
landetaratu gindutenekila
dugu orain hil behar. (BIS)

bere ama agurtu du
etxolako atarian;
bere amak bisitatuko du
atzerriko hilobian. (bis)

morts pour la patrie.....

EPERRAK
Herrikoa

eperrak badituzü
bere bi hegalak
bai eta bürün gainin
kokarda eijer bat
zük ere balinbazünü
gaztetasün eijer bat
neskatilen gogatzeko
bilo holli pollit bat. (bis)

amorosak behar lüke
izan lotsa gabe
gaiaz ebiltia ez üken herabe
egünaz ebiltia desohore leike
txoriak ere oro
haier soz dirade. (bis)

ebili izan nüzü gaiaz eta beti
eia! atzamanen nianez
lili eijer hori
azkenian atzaman düt
oi! bena tristeki
lümarik eijerrena
beitzaio erori. (bis)

mündian ez da nihur
penarik gabe bizi
nik ere badit aski
hoitan segurki
nik desiratzen nizün ezkuntzia
zurekin
bena ene aitak eztü
entzün nahi hori. (bis)

zure aitak zer lüke
eni erraiteko
ala enitzaio aski
haren ofizioko
ala zü soberaxe
zitzaio enetako
printzerik ez ahal da
orai zuenganako. (bis)

SALAMANKARA
Herrikoa

Aita jainkoak egin banindu
zeruetako giltzari
orduntxe bai jakinen nuen
atea nori ireki.

lehenengo aitari, gero amari,
gero anai-arrebari,
ta azken orduan isil-isilik
nire maite politari.

Gazte gaztetik aitak ta amak
fraile ninduten nonbratu
bai eta ere estudiora
salamankara bihaldu.
salamankara nindoalarik
bidean nuen pentsatu
estudiante tunante baino
hobe nuela ezkondu.
Eskondu nintzan,
Bai ni eskondu,
bai tas arritan damutu
praka baltzetan ari zuririk
sekula ez jat faltatu.

SAN SIMON
Herrikoa

san simon eta san juda
joan zen uda,
eta negua heldu da (bis)

ez baletor hobe,
bizi gara pobre
eremu latz honetan
ez gara hain onak benetan

ez dugu zaldirik,
ez gara zaldunak
ez dugu abererik,
ez gara aberatsak
euskara guk dugu,
gu gara euskaldunak
euskara guk dugu,
gu gara euskaldunak..

TXALAPARTA
Gorka Knörr

tiriki-trauki
hiru ta lau dira zazpi,
xurruxumurru bat
batean dira urrun, urrun
tiriki-trauki ezker eskubi
bien artean dago zubi,
hots bare-bare hor
leiho sare
hiru ta lau dira bi... (3 aldiz)
bat..., bat... bat ... bat ...

laila la la .....

XALBADORREN HERIOTZEAN
Xabier Lete

adiskide bat bazen
benetan bihotzbera
poesiaren hegoek
sentimenduzko bertsoek
antzaldatzen zutena.

plazetako kantari
bakardadez josia
hitzen lihoa iruten
bere barnean irauten
oinazez ikasia...ikasia

non hago, zer larretan
urepeleko artzaina
mendi hegaletan gora
oroitzapenen gerora
ihesetan joan hintzana (bis)

hesia urraturik
libratu huen kanta
lotura guztietatik
gorputzaren mugetatik
aske sentitu nahirik

azken hatsa huela
bertsorik sakonena
inoiz esan ezin diren
estalitako hegien
oihurik bortitzena...
bortitzena

non hago....

OI AMA ESKUAL HERRI
Etxahun Iruri

anaia etxen da ezküntü
bükatü niz oain joaitera
ene opilaren egitera
pariserat banüazü

oi ama eskual herri goxua
zutandik urrun triste
banua
adios gaixo etxondua
adios xiberua.

pariseko bizitzia
lan khostüzuriaz bagiazü
bena berantzen zütadazü
zure berriz ikustia

oi ama eskual...

bena denbora da llaburxko
othoi ama entzün nezazü
xokho bat haita izadazü
azken egun horientako

oi ama eskual...

PASAIAKO HERRITIK
Xenpelar/ M. Laboa

pasaiako herritik
dator notizia
zezen bat izan dala
jenioz bizia
kantatutzera nua
bistan ikusia
alegratzeko triste
dagoen guzia.

santiago eguna
pasaian seinale
ailegatu eztanak
egin beza galde
hasieran jendia
zezenaren alde
azkenean etziran
arrimatu zale.

gure pasaia beti
sonatua dago
errapin gabe ezta
urte bat igaro
urrengoan jarriko
dituztela nago
barrera hestuago edo
zezena handiago.

torillotik atera
zuten lehendabizi
behi zar bat gidaria
bandera ta guzi
harrapatzen zuena
purrukatzen hasi
azkenean kanpora
plazatik igesi.

hiru komertziante
plazatik kanpoan
poxpolo ta barkillo
labaina tratuan,
pareta egon arren
hamar oin altuan
panparroi pasatu zen
putzura saltuan.

hoiek horrela eta
gehiago ere bai
lurrian ziraldoka
egin zuten lasai
ezkonberriak eta
zenbait dama galai
zezenaren mendian
etzuten jarri nahi.

plazatik itsasora
salta da igeri
adarrak besterikan
etzuen ageri
bakerua begira bere zezenari
eserita jan ditu hiru libra ogi.

BALDORBA
J.A Urbeltz/B. Lertxundi

ezkil gabeko elizen
eremu emankorra,
giza murzuriko
zure ardientzat.

oi baldorba! oi baldorba!
eguzki eta haize ior;
mahats-ardo ibai,
galburuarena.

lur gorri, harri landu,
mailua eta xixelaren kantu.
gitarrazko alakiketan
armeniako kanun ahots
urratuan.

oi baldorba! oi baldorba!
esazu nor zen bidetik
baztertu zintuen
madarikatua!

zure irriño erromanikoa
erdi izoztu eta leloturik
utzi zuen madarikatuaren
izena nahi dut.

oi baldorba! oi baldorba!
ezazu nor zen bidetik
baztertu zintuen
madarikatua!

oi baldorba! oi baldorba!
zutaz oroit eta
zuri nagotzu.

kantu bat laburra da eta
pentsa zuk,
esaten ez dizudan hartaz.

oi baldorba! oi baldorba!
esazu nor zen bidetik
baztertu zintuen
madarikatua.

MARIA SOLT ETA KASTERO
Etxaun Barkoxe/B. Lertxundi

maria solt eta kastero
bi amoros zahar bero.
hirurogei-hamarna urtetan
hartü die amorio
kastero, jelostü gero, maria
solt ezarri kanpo.

maria solta dua nigarrez
izorra dela beldurrez.
barnets-bordako anderiak
kontsolatü du elez
emazte zaharrik oküpü
agitzen eztela ez.

maria soltek arrapostü
santa elisabet badüzü
saintu zahar bateganik oküpü
agitü düzü
kastero ere bada saintü, hala
nitzan beldür nüzü.

kastero eztüzü saintü
sobera bürhaüti düzü.
elizalat juan eta taharnan
egoiten düzü
kastero denagatik saintü
maria solt antü zira zü.

NULA BIZI, HALA KANTA
(Jean Luis Aranbürü Bidabe)

Üdako egunaldi bero argietan
Airiak ekarri indar guzietan
Kantü berri zaikü
sortu goguetan
eskentzeko negüko
gaü lüzeetan

Ainhera bezala
biltzen da gizona
baten ahairia denek egarria

algarretatzea zuin miragarria
etxe onduan piztüko
giro huna

**"Nüla bizi hala kanta",
dio üskaldunak
maitarzün emanez hola
adio lagüna (bis)**.

Aiten aitek utzi guri oparia
Idatzian ere zer dote ederra
Egün edatu nahi zien sugarra
Agor ez dadin hitzen üthürria

"Nola bizi, hala kanta".....

HABANERA
Xabier Lete

Berriro itzuliko balitz
iragan denbora arrotza
berdin kontsumi nezake
banilla gozo artean,
itsaso urrun batetan
irudimena galdurik
udaberriko euritan
larrosak pizten ikusiz.

Osaba komertzianterik
ez nuen izan Habanan,
pianorik ez zegoen
bizi nintzen etxe hartan,
neskatxen puntilla fiñak
udako arratsaldetan,
errosario santua
neguko gela hotzean.

Ezpainek gordetzen dute
ezpain bustien gustoa
desiozko hotzikaran
etsipenaren tamalez,
gaua zelatan dakusat
kontzientzia bilutsik
badoaz orduz geldiak
gogorapenen hegalez.

Jaio giñen, bizi gera
ez dugu ezer eskatzen
itsasontzia astiro
kaiatik ari da urruntzen.
Antillak zintzilik daude
argazkien paretetan
karta bat idatziko dut
norbaitek erantzun dezan.

Tabako, ron ta kanelaz
girotutako arratsetan
algarak entzuten ziren
Habanako putetxetan,
abanikodun mulatak
gauari haize egiten
musiken aide nagiek
odola erretzen zuten.

Jaio giñen, bizi gera
ez dugu ezer eskatzen
itsasontzia astiro
kaiatik ari da urruntzen.
Antillak zintzilik daude
argazkien paretetan
karta bat idatziko dut
norbaitek erantzun dezan.

AMETS, AMETS EGIN
A. Zubikarai

Amets, amets egin itxas
gizona,
amets, zure ametsa gerta
leikela.

Berriz etorriko zera
Ondarru'ko kaiera,
han daukazu maitea,
itxaroten dezuna,
berriz etorriko zera, zure
txaluparekin
han daukazu maitea ta
bihotza.

han daukazu maitea ta
bihotza.

BASERRIKO ATE ZABALAK
Txomin Artola

baserriko ate zabalak
irekiak eta prest daude
uztaileko belar-igarrak
mantso doan orga
betetzen du.
nabarra eta berde
nahasi artean,
argia jostari
eta hango zapaian,
besatarak pilaka.

hortze naiz laguntzen,
organ etzana iritsi naiz
hanka bat bestearen
gainean nuela

dardara gozoak
sumatu ditut
orga-hagatik jauziaz,
pagotxa eta alpapa
bildu ditut
itzulka noa, jira-biraka,
eta belar idorra dut
nere bilo nahasietan.

URTXINTXAK
M. Pagola/Pantxoa ta Peio

urtxintxak oihanian, jauzika,
aldaxkatik aldaxkara...
"zuk erradazu, ama, zendako
ez diren erortzen lurrerat?.."

"**nik ere nahi nuke izan
urtxintxa bezala!
hain gora, hain trebe,
izaiteko libre!..."**

urtxintxak oihanian zintzilik,
buruz behera buztanetik!...
"zuk erradazu, ama, zendako
ez duten buruko minik?.."

urtxintxak oihanian,
karruxkaz,
neguko bilduma
intzaurrekin...
"zuk erradazu, ama, zendako
ez dezaketan egin berdin?.."

BEGIAK PARREZ-PARREZ
Herrikoa

begiak parrez-parrez,
bihotza negarrez, (bis)
halaxe joaten nintzan, maitia,
zugandik, dolorez. (bis)

ama zuriak neri,
ama zuriak neri
parian pasata, (bis)
ez dit agurrik egin, maitia,
burua jirata. (bis)

ama zuriak neri
ez agur eiteko, (bis)
zer palazio dauka, maitia,
zuri emateko? (bis)

palazio eder bat
haitzaren gainian, (bis)
ez da euririk sartzen, maitia,
ari ez dunian; ai, ai, ai.
ez da haizerik sartzen, maitia,
ez dabilenian.

MUÑAGORRIREN BERTSOAK
Muñagorri/B. Lertxundi

Muñagorrik diona
bere proklamian,
gerrak ondatzen gaitu
bosgarren urtian;
igaz jarrikan carlos
madrilko bidian,
bultza zuten atzera,
gerra bere oñian.

agintari onenak
preso daduzkate;
euskalduna izatia
du bakoitzak kalde.
tejeiro ta maroto
guzien alkate:
zer gizon hoietatik
espera gentzake.

carlos agertu ezkero probintzi hauetan
beti bizi gerade
neke ta penetan.
nahiz kendu guk duguna
behiñere ezer eman
bost negar egiteko
nunbait jaio ginian.

semiak soldatu ta
preso gurasoak,
ezin pagaturikan
kontribuziuak.
trintxera lanetara
gañera auzuak
dolorezkoak dira
gaur gure pausuak.

kordoiz inguraturik
kostatik ebrora,
trabaz gaude josirik
bera eta gora.
atzenikan frantsesak
itxi du frontera.
gerrak ez dakar onik
iñundik iñora.

atia itxi ta ogia garesti;
artua ere ari da
igotzen poliki;
dirua ezkutatzen da
egunero hemendik.
nola bizi garen bada,
harritutzen naiz ni.

KALERA, KALERA
Telesforo Monzon

altza begiak zabaldu orok,
deidarra lagunari,
berriro izanen gaituk hire
indar emanaz iraultzari.

kalera, kalera, borrokalari,
kalera. (bis)
hire indarraren beharra diagu
gure indarrarekin batera.
(bis)

zai dago ama, zai aita,
zai andre ta lagunak.
hator, hator euskadira;
hator, hator etxera.

ezin gure oihuak isildu
ezin gaituzte zapaldu,
lagunak non diren badakigu,
oihuka herria daukagu.

luza eskuak indarrik baduk,
jaikitzeko garaia da;
herri guztia zuen zai dago
denok eskuz esku helduta.

MATALAZ
B.Goienetxe/B. Lertxundi

dolü gabe dolü gabe,
hiltzen niz,
bizia xiberuarentako
emaiten baitut.
agian, agian, egün batez
jeikiko dira
egiazko xiberrutarrak,
egiazko euskaldunak,
tirano arrotzen hiltzeko,
egiazko euskaldunak,
tirano arrotzen hiltzeko.

NORA GOAZ
Daniel Landart/Errobi

Gure toki eder guztiak
dituzte abilki bildu
Beren egintzen obratzeko
denak baso denak aizu

Lege arrotz madarikatu
bihurtuez baliatuz
Gure herria deramate
heriotzeari buruz

Mementoan ahul gira
bainan ez da luzarako
gure itsutasunetik
Bait gira laster jalgiko

Itsaz basterra hartu dute
bai eta etxe zaharrak
artzain borda edo etxolak,
arbasoek utzi lurrak.

Eta orain nahi digute
mendia ere ebatsi
Nola deabru beharko dugu
hemendik aintzina bizi

Mementoan ahul gira .....

Gure herrian lantegiak
dira zinez beharrezko
Zorigaitzez jaun txapeldunek
turismoa nahiago

Turismoaren izenean
gure hobeki galtzeko
nola segituz luza gabe
etzauku deus geldituko

Atzar hadi, Atzar hadi
Ene euskaldun haurride.
Atzar hadi, Atzar hadi
Euskal Herriaren alde (bis)

Atzar adi. (lau).

GURE ZORTEA
Daniel Landart/Errobi

Euskal herriko neska politak
norabait dira airatu
seme sanoak ezkondu gabe
bakar bakarrik gelditu
Mendi gaineko elur zuria
etsaiek dute zikindu
Hori ikusiz ama Euskadi
Nigar hauen ez da lotu (bis)

Zazpi probintzi, zazpiak anai
bata besteari sosalde
Baina goiz batez,
aundi aundiek
muga bat dute esartzen
Eta geroztik asko ta asko
seme alabek ahantziz
ama bakarra beti dabila
ukan dugula Euskadi (bis)

Erdal aizeak gogo bihotzak
usu nahi dituna hasi
egia gordez sakelak betez
eskerrak karguduneri
Bainan alere Ama Euskadik
ez du etsitzen bat ere
badaki seme egiazkoek
dutela zin zinez maite (bis)

Abertzalea ikaran hago
mintzaira ez haiz galdu
ez dakit nola hemendik goitik
beharko duen jokatu
Euskal arima arrotzek dute
hiltzeari kondenatu
Amaren maitez armen bidea
behar ote dugu hartu (bis)

Pazionean iragan ordu
etorriko da eguna
Gizon, emaztek, haur ala
gazteek
igurikatzen duguna.
Euskal Herria ez da ez hilen
bainan Euskadi sortuko
gero sekulan nehork ez deus ez
ez baitu hiltzen ahalko (bis)

gero sekulan nehork ez deus ez
ez baitu hiltzen ahalko (bis)

TELEBIXTA
Daniel Landart/ Errobi

Gaurko mendeak eskaini digu
gauza bat zinez polita
polita eta goxoa eta
ozena bezain galanta
zuri begira pasatzen dugu
zenbait eta zenbait bulta
gure etxean sartzen baituzu
arras maite dugun besta (Ber)

Agur beraz zuri
agur telebista
tanti ruri ruri, tanti ruri rura
agur telebista
profeten profeta.

Dena kolore, lilura, kantu,
ministroak usu mintzo
bai eta ere jaun presidenta
su ondoan kokoriko.
Horiek denak oso umilki
heldu dira egunero.
Gauza hoberik ezin zen asma
euskaldunen frantsesteko.

Agur beraz zuri
agur telebista
tanti ruri ruri, tanti ruri rura
agur telebista
gezurtari adreta.

Munduko berri hara-hunatak
kirola eta besteak
haundi-haundien faltsukeriaz
dirade bete-beteak.
Jaun aberatsak baitira egun
telebistaren jabeak
jabeak eta populuaren
lokararazle trebeak.

Agur beraz zuri
agur telebista
tanti ruri ruri, tanti ruri rura
agur telebista
gu guzien, gu guzien, gu
guzien
izorratzaile galanta.
Telebixta, telebixta.

PERTTOLI
Daniel Landart/Errobi

Perttolik bazuen
itsas bazterrian
Etxe ttipino bat
lurrean dabila
Aita-ama zaharrek
sakoten utzia
Haz zezan nolasbait
bere familia

Perttoli gaixoa
ez bait zen ezkondu
bere etxea du
arrotz bati zaldu
ta orain bizi da
azalen batean
ez bait du begirik
ertzen gau guztian

Arrotz aberatsak
etxe zaharretik
ostatu eder bat
egin du lehenik
Bainan arrotz horrek
bazuen besterik
kasko gibelean
luzaz asmaturik

Ohartua baizen Eskualerriko
neskatzak zirela
eder eta sano
eta harik bispalau
zituen galdatu
ta heiek gogotik
eskaintza onartu

Azeri abila ostatu berrian
gauoan seino bat
egin du guzia
kanpoan ezarriz
argi ilunenak
ta barnean aldiz emazte abia

Bere nagusiari maiz obeditu
gure neskatilak
lan txarrari lotu
Bere nagusiari maiz obeditu
gure neskatilak
lan txarrari lotu

Ez zaio ote aski
arrotz horrieri
unat etortzea dena ustelkeri
gure arbasoen ohitura onak
funditu dituzte
esarriz berena

Ta gure herrian
direlakoz jabe

nahi dute beraz
gaiten usteldu ere,
ta gure herriaz direlakoz jabe
nahi dute beraz
gaiten usteldu ere,
ta gure herriaz ....

BESTE BATEKILAN
Daniel Landart/Anje Duhalde

Amodio esti eta garbi batez
ene bihotza da zinez berotua
baina zorigaitzez ari naiz .....
ari naiz negarrez
zu ez zarelako izanen enia

Eni erran zautan
maite ninduela
nik ere sinetsi enetako zela,
bainan airatu da .....
airatu da beste batekilan
eta ni gelditu
bakarrik herrian

Aita-ama gaixoak
subazter txokuan
nekatuak dira ta otoitzez ari
gure etxaldea errekara ....
errekarakoan
beharko ginuke bizirik atxiki

Bainan joan zira,
beste batekilan
iri ederrean egonen zarete,
ni kanpaina zulan, ...
zulan, ta kabalekilan
biziko naiz ilun, uzkur ta
herabe.

Ez dakit zer egin
ta nola kontsola,
arrunt hostia dut
barneko odola,
ez bait nuen uste, joanen ....
joanen zinela
ni engainaturik
etsai bat bezala (*hiruna***)**

LANTEGIKO HAMAR MANDAMENDUAK
Daniel Landart/Errobi

Nagusiak dituzu maitatuko
bai eta, bai eta
Ahal bezain ongi zerbitzatuko
Lanaren hasteko eta uzteko
orduak, orduak
dituzu beti errespetatuko

Lanean denborarik ez
galtzeko
ez zara, ez zara
inoiz lagunekin solastatuko

Nagusiak arrazoin duelako
denetan, denetan
ez zara haren kontra
mintzatuko

Telefonoa ez duzu hunkituko
ahalaz, ahalaz
kanpotik inork ez zaitu
deituko

Ongi irabazten duzulako
ez duzu, ez duzu
emendazionerik galdatuko

Lan prestatu baten
aintzinatzeko
beharrez, beharrez
igandetan hartzea onartuko

Nagusiak hazten zaituelako
agian, agian
ez diozu ezerrez ebatsiko

Nagusiak baitira beharrezko
sekulan, sekulan
ez duzu haien lana trabatuko

Ta gauean langileek eskainiko
Pottotta ta ipurdi
NAGUSIARENDAKO ....

IRTENBIDERIK EZ ZEN
X.Amuriza/A. Duhalde

Amaitu da guztia
urgain barean nago
itsasoan harago
eta atsedenago.
Gezurra diodanik
ez didazu esango
iruditzen banauzu
ordu batzuk lehenago.

Milesker, oi Herio
salbatu nauzulako
ukan nazazu otoi
beti zure meneko.
Zuek ez egin negar
isilak diraueno
orain hobeki nago
haien eskuan baino.

Jo naute, hil naute
irtenbiderik ez zen
jo naute, hil arte
itzulbiderik ez zen
onena hiltzea
zela ohartu nintzen
neronen gorputza ere
ez nuen ezagutzen.

Utz nazazue neure
amets gabeko lotan
oroitu nazazue
sehaskako bertsotan.
Bizitzaren batera
berriz itzartzekotan
ez nazazue piztu
gorputz apurtu hontan.

Jo naute (...)

ARBOLA GAINEAN
(GUK/Sarasola/PP Berzaitz)

Arbola gainean
xoria da kantatzen
Kantatzen da eta
bazterrak inarrosten
Inarrosi eta hostoa da
erortzen
Euskal bihootza da
bilaiz egoiten.
Bilaizi ondoan
han dira errabian
Xiloka beltzian
handik elki nahian
Handik elki eta
kantatzerat abian
Lagun zonbait bidian
ikusiko agian.

Laaaa, lara, lara, lara...

Goiz argi eder bat
beti jeikitzen nunbait
Nunbait jeiki eta
zorionean zonbait
Bizi hobeago
denek dukete gogo

Bainan bakarrik ezin
egin asmo.
Haur baten sortzeko
sofritze beharrezko
Bizi hobetzeko
legeen bihurtzeko
Nor da abiatzen
lagun zonbaiten biltzen
Herriaren salbatzen
herioari kentzen.

Laaaa, lara, lara, lara...

Gaur Euskal Herrian
zuhaina da landatzen
Landatzen da eta
gero fruitu ekartzen
Fruitu ekar eta
auzoa da kexatzen
Iraultzalaria madarikatzen.
Jar giten ildoan igeri izerdian
Izerdian eta
lepozainak hegian
Besoez ta botzez,
hortzez eta haginez
Lagun bat zorionez
ikusiko dugunez.

Laaa, lara...

AZKEN DANTZA
M. Pagola/ Pantxoa ta Peio

Azken dantza hau,
maitia zurekin ...
nahi zinduzket
ereman nerekin ...
Bainan, gaurko xedia
ezin daike betia! ...
Badakit, nik ere,
bihar dela joaitea! ...

Bego pena hau!
itzuliren naiz
Bai! berritz Euskal
Herrirat!
Bego urte hau
itzuliren naiz
betikotz zure ondora! ...

Azken dantza hau
ez da sekulako ...
Zin egina dut
zin egin betiko ...
Hemen, gure lurrean
bizi behar dudala! ...
Hori ez bada,
hil hotz jar nadila! ...

NIGARRA BEGIAN
Xalbador - B.L.

Sumatuz euskaldunak,
ospetsu nahian,
guretik deus ez duen
hizkuntza mihian,
sofritzen egoiten naiz
horien erdian,
gutaz ahalgetua,
nigarra begian.

Nehoiz etzeraukula,
nik ez dut etsiko,
gure kontzientzia
atzartzen hasiko;
egungo balentriak
ez baitu betiko
odolaren mintzoa ixilaraziko.

O, entzule maitea,
otoi barkamendu,
ez badut bozkarioz
kantaldi hau ondu!
jostetako gogoa
dautate kendu,
aunitz maite duenak
aunitz sofritzen du.

Guk uste baino lehen
jin daike eguna
Euskaldun deit gaitzaken
nahiko duguna
Ehortzi duguneko
lurpean hain barna
Euskalduna izateko
gauza beharrena

ERRIBERA
B. Lertxundi

Erribera, Erribera,
zure landen zabalera
ortzi muga den hartan
mugatzen da.

Zure lur emankorretan
isurtzen diren asmoak
gogotsu hartuko al ditu
lur gozoak.

Zure gaztelu zaharrek
gorderik duten antzina
hats tristetan mintzo da
haren mina.

Horma zahar arraituetan
txoriak dira kantatzen
mendetako lo geldia
salatzen.

Nafarra anai zaharra
kondairaren lehen sustarra
bego higan arbasoen
amets hura.

GORA TA GORA BETI
Oskorri

Gora ta gora beti,
haik gora Lapurdi!
Euskerak bizi gaitu
eta bizi bedi.

Gorantza doa agudo kapitala
eta Lapurdi beti dago apala,
aldrebesturik dago mundu
zitala,
konformatzen ez bagara
ze pekatu mortala!

Gurea ez da bizi-modu
normala
lurra lantzeko
haitzurra eta pala,
lanaren truke kobratzen
erreala.
Benetan da miserable
euskaldunon jornala.

Munduan ezin bizi daiteke
hala,
merkatuetan dena gora
doala,
etxera eta zopa guztiz argala,
kriseiluen olioa
ez da postre formala.

Obrero eta nekazari leiala,
zuena ez da errenta liberala.
Diru zikinak
putre motzak bezala
botatzen dizu gainera
hortxe bere itzala.

Jabeek dute kontzientzi zabala,
kakastu dute gure lurren azala,
baina Lapurdi
ez da hain zerbitzala;
burruka garbian dago
hori da printzipala.

GUK EUSKARAZ
Gabriel Aresti/Urko

Guk euskaraz
Zuk, zergatik ez? (Bis)

Euskara putzu sakon
eta ilun bat zen, (Bis)
eta zuek denok
ur gazi bat atera zenuten
handik nekez. (Bis)
Guk euskaraz...

Orain zuen birtutez
zuen indarrez (Bis)
euskara
itsaso urdin
eta zabal bat
izanen da
eta guria da. (Bis)

KAPITALISMOAK
G. Mendibil/ Xeberri

Kapitalismoak dakarren
katai ta zapalketa
izan dadila guretzat
indar askatzailea,
izan dadila guretzat
indar askatzailea.

Nagusi lantokietan
baserri ta eskoletan
gure herriko nausiak
izan arte aurrera,
gure herriko nausiak
izan arte aurrera.

Aurrera langiledia
aurrera herri-gizona
etsaiak puskatu arte
jo dezagun aurrera,
etsaiak puskatu arte
jo dezagun aurrera.

Langile, nekazariak
euskaldun guztiak
ez dezagun gure herrian
klase diferentziak
egin dezagun biharko
Euskadi sozialista bat,
egin dezagun biharko
Euskadi sozialista bat.

LORETXOA
B. Lertxundi

Mendian larrartean
aurkitzen da loretxo bat
aurrean umetxo bat
loretxoari begira.

Loreak esan nahi dio
umetxo aska nazazu,
jaio naiz libre izateko
ta ez loturik egoteko.

Umetxoak ikusirik
lorea ezin bizirik
arantzak kendu nahi dizkio
bizi berri bat eman,

orduan izango bait du
indarra eta kemena
orduan emango baitu
ugari bere fruitua.

PRIMADERAKO LILIAK
Labegerie/Lertxundi/Donovan

Primaderako liliak
Goizik ziren loratuak,
Urthe hartan gertatu zen
Pazko erramu baino lehen.

Gaituzte ezkontarazi
Maite ninduzun hain gutti
Ezkontarazi gaituzte
Ez zintudalarik maite.

Ginuelarik elgarri
Eman biziko uztarri.
Ezkilak zeuden ixilik
Nik ez baitakit zergatik.
Gaituzte ezkontarazi...

Ez zuten egin boleran
menturaz ziren Erroman;
Ez ziren gure lekuko
Ez izanen bataioko.
Gaituzte ezkontarazi...

Nonbait balinbada zeru
Gure haurra da aingeru
Aingeru zeruan bainan
umerik ez ohantzean.
Gaituzte ezkontarazi...

Bihotza hotzez kaskaran
nago beroaren menturan.
Etor bedi primabera
kanpoak diten berriz lora.

Gaituzte ezkontarazi
elgarregin behar bizi;
Ezkontarazi gaituzte
Behar dugu elgar maite

GURE LEKUKOTASUNA
D. Landart/ ERROBI

Zuen aurrean,
jaun andereak,
ibiltzen gara askotan ....,
Bozkarioa ezarri nahiz, denen
gogo-bihotzetan, Baina giroa,
ez dago naski, alaitzeko
denboretan..., Oraindik
ere Euskal Herria, ari baita
negarretan! (bis)

Ez dugu segur
gauza haundirik
Herriari eskaintzeko
bakar bakarrik zenbait olerki,
hemen zuei kantatzeko
Guk ere zinez, gure Herria
asko maite dugulako,
eta kantuaz, gure moldean,
nolazbait zerbitzatzeko (bis)

Ba dakigu bai, kantuaz beste
nahi duela Herriak ....
bainan ez dira
denontzat berdin
iraultzaren iturriak.
Bakoitzak beraz, bere sailean,
ezar ditzala harriak
elkarren lanak,
ongi uztartuz,
altxatzen dira etxeak

Etxe batean
nork ez du maite,
beti kantuz ari dena?
Baina kantua, ez da ez aski,
egin behar ere lana!
Gaurko kantu hau
izan dadila,
gure lekukotasuna ....

Burruka gaiten,
irabazteko, Euskadin
askatasuna! (bis) Euskadin
askatasunaaa! (lau)

EUSKALDUNEK MUNDUAN
M. Pagola/Pantxoa ta Peio

Euskaldunek munduan
ez dugu parerik,
Hortakotz ez ginuke
guk behar nausirik!
Elgarretara beraz
zazpiak bildurik!
ez dugu onetsiko
Herrian Kaskoinik!

Zeruan gora dago
Euskaldun izarra,
gazte bahintz bezala
xuti hor zaharra!
Kopeta apaltzea
da gure makurra,
Oi nausi izaitea
zer gauza ederra!

Euskaldunak ez ahantz
beti han dagola,
jaungoikoak emana
Gernikan arbola!
Euskaldun egon bedi
Euskaldun odola!
Kaskoinak Kaskoinian sekulan
daudela!

Oihu hau aditzean
xuti gaiten denak!
eta egin ditzagun
ahal ditugunak!
Hauxe dauku galdetzen
gure Jainko Jaunak
Euskaldun egon gaiten
beti Euskaldunak!

ILARGIA
Ken Zazpi

Esaiozu euriari
berriz ez jausteko
esan bakardadeari
gaur ez etortzeko...
(na,na,na,na,na,na,na,na)BIS

Eusten nauen soka zara
ta itotzen nauena
ametsak sortu zizkidana
galtzen dituena...
(na,na,na,na,na,na,na,na)BIS

Zuretzat ilargia
lapurtuko nuke gauero
eta zu itsu zaude
bere argia ikusteko
irribarrez,gero minez,
eragin didazu negarra,
nire sua itzali da,
ez zara gaueko izar bakarra,
ez zara!!!
na,na,na,na,na,na,na,na (bis)

Esan sentitzen dudana
ez dela egia,
une batez sinisteko
ez garen guztia.
(na,na,na,na,na,na,na,na)BIS

GREZIAKO ITSASONTZIA
Lluis Llach/Xabier Lete

Itsaso gaindi ikusten baduzu
Gure gogoa daraman ontzia
Etzazu pentsa galduta doanik
Argitzen baitu
goizeko eguzkiak.

Hainbeste amets
negar ta desio
Ez du ekaitzak
hondora botako
Salbatuko da goizeko ontzia
Kaiaren bila egaka joateko.

Arraun berriek
eramango dute
Bide zaharretik askatasunera
Ohial txuriak haizea bildurik
Gure arnasa
biltzen den batera.

Ez du ekaitzak
hondora botako
Salbatuko da goizeko ontzia.

NARAMA
Gozategi

Banekien maite ninduela
Beste maitalerik etzuela
Bihotzez mundua eman zidan
Eguzkiak argia bezala.

Hainbeste kostatako samina
Zin dagizut nire nahia etzala
Larroz bati usaiaren pare
Gozoki bildu da niregana
Itxaroten ari nintzen dama.

Aspaldian maite nuen lore
Laztana zenbat huts banan
banan
Bihotzak berarekin narama.

Banekien .....(errepikatu
osoa).

Hainbeste .....
(hirugarrenez).

KUPELA
Epelde ta Larrañaga

Kupela, kupela,
sagardoren hotela.
Kupela, kupela,
zaindu ezak horrela.

Gertakizun polit bat
behin Asturias-en,
Ez dakit guziekin
gogorako naizen.
Lagun bat eta biok
andrekin hain zuzen,
Sagardotegi baten
afaria baitzen
Numero dotoreak
ikusi ginuzen.
Kupela, kupela, ...

Talde bat osatu zen
mutil ta neskatxa
Festan pasa nahi zuten
gurekin arratsa

Tragotikan tragora
ze nolako martxa
Sagardoan daukaten
afizio latza
Gehiegi edan genuen,
hori zen akatsa.
Kupela, kupela, ……..

Leku berria zen ta
joan ginen pozak
Festarako gera gu
mutil aproposak
Geureak aitortzeko
zertan egon lotsak
Sarri ireki ziren
ziri edo zotzak
Bapo kendu ginuzen
hanketako hotzak.
Kupela, kupela,…

Humorez jarri ginen,
ondorenean zer:
Erderaz bertsoetan,
"lo que hase el beber".
Inguruko jendeak
barrez egin leher.
Erretiratu ginen
emazteei esker.
Txispatu ginen
baino etzan pasa ezer.

Kupela, kupela,
sagardoren hotela;
Kupela, kupela,
bete zaigu sabela. (BIS)

IBAINETAKO KANTA
P. P. Berzaitz

Üskal herrian
gu girade nausi
Bena bestek ditie
bazterrak nahasi.
Behar üken dügü borrokatzen
hasi,
etsaien zampatzia
etzaiku itsusi,
etzaiku itsusi (bis).

Ibainetako naban garaitzia
Bozkariak itzalak
euskaldun guziak.
Fruitu ekarri du
haien bihurtziak,
hola ziren salbatu
zazpi probintziak,
zazpi probintziak (bis).

Xhei hunen gehia
zen azpaldikua
Benan euskaldunentzat
bardin oraikua.
Hau ere egunian
oiuztatzekua,
bizi nahian dela gure Ziberua,
gure Ziberua (bis).

EZ DUT BILATZEN ……..
Pagola/Pantxoa ta Peio

Ez dut bilatzen aberatsen
bidetarik ibiltzea!
Ez dut bilatzen haundiekin
nik jokoetan artzea!
Jende gehienak bezala sortua
Ait´amen lurrari lotua!
Behardunekin bizitzea:
hori da neure hautatua!
Jende oro dira behardun
ukanik ere ontasun ...
Baina aberats guti jartzen
jende xelebre lagun!
Aberatsen eskua urrun
heltzen,
Zer nahi nun nahi tinkatzen...
Gure herriaren geroaz
dute tratu merk egiten!
Otsoak bordan otsoekin,
gaixo bildotsak hoiekin!
Bainan bordazainak nun dira?
Ager ditela argira!
Euskal Herria
euskaldunendako:
berek erran behar hau
nolako!
gaurko gidariek baitute
hori onartu beharko!

MAITATZEN ZAITUDALAKO
Tapia ta Leturia

Maitatzen zaitudalako
kantatzen dizut zuri
zu zaitut negu beltzean
eguzki epel zuri
sargori denean berriz
maitasunezko euri.

Guk elkarri zenbait kontu
eta zenbait irrino!
iruditzen zait gerala
ilargitan bi laino,
egunez bihurtzen gera
zu ta ni bi txorino.

Elkarri begiratuta
hasten gera kantari
orduan deitzen diogu
maitasun-haizeari
eta harek jartzen gaitu
firi-firi dantzari.

Dantza dezagun, ba, dantza
maiteño bihotzeko!
mundura ez ginen jaio
gu triste bizitzeko
baizik tristura guztiak
kantuz poz bihurtzeko.

BARATZE BAT
Hitzak-musika P. P. Berzaitz
Moldaketa Taberna Ibiltaria

Hau da egün ederra
mila txoriek kanta
tziauri en´erregina
besoak zuri dititzüt para.

Baratze bat
nahi deizüt egin
Amets segeretüenekilan
Liliak egün
jauntzi ederrenetan
Mila kolorez dantzan
bihotzetan.

Gaü beltz ta sakonetik
elkitzen naük hoztürik
Bihotza hain tristerik
hitaz üsü berantetsitürik.

Baratze bat...

Karrosa bat hor dügü
Kanpoan gure haidürü
Ez gal haboro denbora
Hiskor beit dago amodioa

Baratze bat...

Maitarzün berriari
ilargiak dü argi
emanen deikü aski
gük elgar maita dezagün beti.

MENDIAN GORA
X. Amuriza/I. Larzabal

Mendian gora haritza
ahuntzak haitzean dabiltza
itsasoaren arimak dakar
ur gainean bitsa.
Kantatu nahi dut bizitza
usteltzen ez bazait hitza
mundua dantzan
jarriko nuke
Jainkoa banintza. (Bis)

Euskal Herriko tristura
soineko beltzen joskura
txori negartiz bete da eta
umorez hustu da.
Emaidazue freskura
ura eskutik eskura
izarren salda urdina edanda
bizi naiz gustura. (Bis)

Euskal Herriko poeta
kanposantuko tronpeta
hil kanpaiari tiraka eta
hutsari topeka.
Argitu ezak kopeta
penak euretzat gordeta
goizero sortuz bizitza ere
hortxe zegok eta. (Bis)

Mundua ez da beti jai
iñoiz tristea ere bai
bainan badira mila motibo
kantatzeko alai.
Bestela datozen penai
ez diet surik bota nahi
ni hiltzen naizen
gauean behintzat
egizue lo lasai. (Bis)

ILUNTZEAN
Maixa ta Ixiar

Ilargia uretan mulgildu da
itsas arrain txikien ondora
uraren hozkirriaren zirrara
hondar epelaren alboan.

Iluntzean uraren ertzean
errainu baten argia,
ene maite biok jolasean
olatu zipriztin artean.

Haizeak zimurtu du itsasoa
kresalak lehortu malkoa,
maite zure zain hementxe
naukazu
izar goiztiarrei begira.

Iluntzean uraren ertzean...

ZENBAT GARA
Abel Muniategi/ B. Lertxundi

Zenbat gera, lau, bat,
iru bost, zazpi. (bis)

Zer egin degu: Ezer ez.
Zer egiten degu:
Alkar jo.
Zer egingo degu:
Alkar hil.(bis)

Gure asmoak: esperantzak.
Herria: askatasuna,
justizia, bakea.
Egia:maitasuna.
Mitoak: hitz hutsak.

Zenbat gera, lau, bat, hiru
bost zazpi. (bis).
Zer egun degu:.....

Hori ez, hori ez,.....

IBILIKO GERA
B. Lertxundi

Eguzkien argia,
Leihopetik sartzian,
Poz eta alaitasunez
Esnatutzen gera.

Txoriek abestiekin
Alaitutako eguna,
Gizonen gorrotoakin
Hondatuko da eguna.

Ibiliko gera
Alkarri kalte eginaz
Uztez la(g)unik
haundirenak aurrez ondo
hitz eginaz.
Batzuen izerdiekin
Besteak diru eginaz,
Egia esan dutena
Giltzapera emanaz.

Gauza hoiek ikusteko
Nolaz esnatzen gera.
Gauza hoiek egiteko
Nola jaikitzen gera.
Txoriek alaitutako
Eguna hondatzeko
Hobe genduke ez esnatu
Ta bertan geldi lotan.

Ibiliko.....

TXAKURRAK
Gorka Knörr

Txakurrak,
txakur bitxiak dira,
bi zangodun txakurrak,
txakur txukunak. (bis)

Lotan,
lotan daude txakurrak,
bere jabearen azpian,
mendez mende lotan. (bis)

Txakurrak, ...

Lotan, ...

Mendez mende lotan (**hiru**)

GAZTENA BIL, GAZTENA JAN
León Saint-Esteben/P. Carrere

Gure pentse xola xolan,
Xerrikume nerekilan.
Ari gira lan eta lan,
Gaztena bil, gaztena jan.

Gaztena bil, gaztena jan
Asteazkena jin denian.
Gaztena bil gaztena jan,
Nehor ez da ikastolan
(bis)

Galtzagorriren sakelan
joareño bat ttalan ttalan.
Andereñok neri eman
Gaztena bil gaztena jan.

Gaztena bil gaztena.....

Errekatxo nere etxean
Ur txirripa bat aldean,
Hiru txakur errabian
Gaztena bil gaztena jan.

Gaztena bil gaztena.....

MAITIAK GALDEGIN ZAUTAN
Herrikoa

Maitiak galdegin zautan, pollit nintzanez (berriz)
Pollit, pollit nintzela bainan
Larrua beltz, larrua beltz!

Maitiak galdegin zautan,
premu nintzanez (berriz)
Premu, premu nintzela bainan
Etxerik ez, etxerik ez!

Maitiak galdegin zautan,
poltsa banuenez (berriz)
Poltsa, poltsa banuela bainan
Dirurik ez, dirurik ez!

Maitiak galdegin zautan
lanean nekienez
Lanean, lanean nekiela
bainan Gogorik ez,
gogorik ez!

Gaixoa hil behar dugu gu biek gosez (berriz)
Gosez, gosez ez naski bainan,
Elgar maitez,
elgar maitez!

IKASTOLETAKO ERRESERKIA

(T. Monzon)

Plazara euskara plazara,
Euskaldun irakasle
Eta ikasleok.
Dantzara plazara dantzara
Geure herriaren geroa
bait gara.

Bai, arreba ta anai,
Guk ere herri bat izan nahi
Geure lurrak laiatuz eta
irauliz
Udaberriko emaitzaren zai.
Herri jakintza nahi dugu,
Eta jakintza herriarentzat
nahi.

Plazara, euskara, ……

Ez, erderarik ez
Euskadin sortu giñanez
Denok euskara bakar bat nahi dugu
Bizi giro ta jakintza bidez
Mundu berri bat nahi dugu
Herri bakoitzak beretik
emanez

Plazara, euskara, …..

De TREBILLEN AZKEN HITZAK
(Etxahun Hiruri)

Herio latza hüllantzen ari hiz
Dolürik gabe orain nitarat
Othoitzen hait ixtant bat ützi
nezak
Ene azken adiuen egitera.
Hori bera da denen ixtoria
Heriuak bardintzen

handi txipiak
Zeren ilüsione bat bera da
Lürren gañeko gure
pasajia.

Ene jaurregi pare gabekua
Hi altxatüz banian fiertate
Hitan igaran, denbora goxua
Haiñ llabür nükila ez nian uste.

Hori bera da…

O Basabürü amiagarria
Bortüz eta mendiz
üngüxatürik
Bostetan begixtatü zütiet
Ürgullürekin terraza huntarik.

Hori bera da….

Adios arren Marie-Maidalena
Zük ingana nezazü lotarik
Ene ondotik baratzen direnez
Izan ez nadiala ahatzerik.

Hori bera da…

Adios arren Marie-Maidalena

IRRIA
Pantxoa ta Peio

Irria, lanik eztiena,
ondorio ezin errana
Hoin aberasten ukailea
Biluzi gabe emailea
Zoin lastergi den iragana
Betikotz daukalarik emana
pobreenari aberatsenak
Ezin kenduzko ondasuna

Irria, irria ..
Irria, irria

Akituaren eztigarri,
etsituaren altxagarri,
doluminetan goxagarri,
nahigabetan sendagarri...
Irria ez da erosten
ez eta ere ebasten,
emaitean balioa hartzen,
ez baitu diruak kundatzen ...

Irria ……

Irria, esperantza xori,
gure anaientzat mezulari ...
Gau egun beltzetan kantari
geroko bizi berriari ...
ezpain bihotzetan irria,
kanta, mutil, libertatia!
zabal munduari egia!
Nausituko da juztizia!

Irria…

BATASUNAREN LILIA
Pier Paul Berzaiz

Batasünaren lilia,
lili xuri ta gorria
Beti lürrez estalia,
odol gorriz tonatüa (berr)

Haur baten eskü xuriak
bildüko dü goiz argian
Et'aterbe segurrean
ezariko gordagian (berr).

Txoria ere joaiten da
bere hegalez airean
Noiz dükegü azkenean
libertade gure etxean (berr).

Zütan düzü biharamuna,
esküetan zorte ona
Gure testamentüa da
GORA EÜSKADI LIBRATÜA
(berr)

MARKOSEN TXARRIXE
Herrikoa/Xabier Arriaga
"Txiplas"

Markosek egin eban
lastozko zubixe,
bertatik pasatzeko
bera ta txarrixe,
pasatzen hasi eta
jausi zan zubixe
Markosek hartu eban
kristoren ostixe

Errekatik urten zan
goraino bustirik,
gainera sikatzeko
ez zan eguzkirik,
egindakoarekin
guztiz damuturik,
berriz ez dau egingo
lastozko zubirik.

Erreka bazterrean
guardarekin kezka,
lizentzi barik egin
ete dauan peska,
eskuak gora jasoz
Markosen protesta,
"Au neure txarrixe da
arrankari ez da".

Erreka pasa eban
berak ozta ozta,
gero guarda dala-ta
txarri horrek ospa,
Markosek bere atzetik
mekaguen dioska:
"Erreka pasatzea
ez jat gitxi kosta"

Markosen txarrixe zan
artoz hazikoa,
San Martinetarako
bere bizikoa,
berari alde eginda
hor ihesi doa,
agur solomo eta
urdaiazpikoa.

Bere txarrixen bila
Gora eta behera,
Ihesi egin deutso,
Ta ez daki nora
Horren pentsamendua
Datorko gogora:
Gatzunaskaren baten
Gordeta egongo da.

TOPA DAGIGUN
Oskorri

Errioxar Baigorriko
Bakio nahiz Getariko.
Topa dagigun eta bakean
Bizi gaitezen betiko (bis)

Umeak arretaz horni
Gazteei hitza eskaini
Gaztetxoago eta haurrago
Izan gaitezen geroni. (bis)

Ez uka amonei hitzik
Entzun agurei pozik
Zaharra ez da izandakoa
Luzaroan dena baizik. (bis)

Hierarkia da lehorra
Harremana emankorra
Errespetuan dago gordeta
Emakumeren altxorra (bis)

OI KANTA BERRI
Michel Labegerie

Oi kanta berri! isilik nago
Orai duela aspaldi
Zuretzat nuen kar bero hura
Suntsitu ez da dirudi
Beste lanetan iragan ditut
Hainbat egun ta gaualdi
Bainan oraino ez dut ukatu
Euskara ez ta euskadi.

Oi kanta berri! Bihotzetikan
Espainetarat jalia.
Euskal airean bidaltzen zaitut
Zu nire mezularia .
Genden artean islatu banaiz
berezle xamurlaria.
Izan zaite zu ene partetik
Bakezale den txoria.

Oi kanta berri! Izan zaite zu
Anai arteko zubia.
Batasunetik libertadera
Gidatzen duen bidea.
Kartzelan den abertzaleari
Emoizu doi bat argia.
Etziturikan den bihotzari
Esperantza ur bizia.

Oi kanta berri Gure Herriak
Behar du bide ta zubi
Etxeetan ere baitezpadako
Argiarekin ur garbi.
Horiek denak ez dire aski
Bizi dadien Euskadi
Hainbat oraino beharko ditu
Kanta bat eta kanta bi

EUSKALHERRIA
B. Gandiaga/Ibai Rekondo

Euskalherria ez dago hilda
Ez dago hilda, bai zera
Euskalherria lotan dago ta
Euskalherria bizi da.
Euskalherria esnatuko da
Esnatuko da goiz baten
Euskalherria goiz baten argiz
Esnatuko da bat baten.

Euskalherria hasita dago
Hasita dago esnatzen
Euskalherria hasita dago
Gauzak argitan ikusten.
Euskalherria begira dago egin
behar dun lanari
Euskalherria ez da bildurtzen
Ditu langile ugari.

Euskalherria aurrera doa
Euskal ekintza osoan
Euskalherria seguru doa
Bere gizonen pausoan.
Euskalherria ez dago hilda
Ez dago hilda, bai zera.
Euskalherria bizirik dago,
Euskalherria geu gera.

LORIAK UDAN IHINTZA BEZELA
Bilintx

Loriak udan ihintza bezela
maite det dama gazte bat,
hari hainbeste nahi diodanik
ez da munduan beste bat;
inoiz edo behin
pasatzen badet
ikusi gabe aste bat,
bihotz guztira
banatutzen zait
halako gauza triste bat.

Neskatxa gazte, paregabea,
apirileko arrosa,

izarra bezin dizdizaria,
txoria bezin airosa;
oraintxen baino
gusto gehiago
nik ezin nezakeen goza;
zorionian ikusten zaitut,
nere bihotzak, hau poza!

Nere betiko pentsamendua
nere kontsolagarria,
zu gabetanik ezin bizi naiz,
esaten dizut egia;
zu bazinake arbola eta
ni baldin banintz txoria,
nik zu zinakeen
arbola hartantxe
egingo nuke kabia.

AGUR XIBERUA
Etxahun Iruri

Sor lekhia ützirik
gazte nintzalarik,
Parisen sarthü nintzan
korajez betherik.
Plazerez gose eta
bürian hartürik
behar niala alegera bizirik
Bostetan geroztik,
nigar egiten dit,
Xiberua zuri.

Agur Xiberua,
bazter güzietako xokhorik eijerrena!
Agur sor lekhia,
zuri ditit ene ametsik goxuenak.
Bihotzan erditik
bostetan elki deitadazüt hasperena;
zü ützi geroztik
bizi niz trixterik,
abandonatürik,
ez beita herririk,
Parisez besterik,
zü bezalakorik.

Palazio ederretan
gira alojatzen,
eta segür goratik
aide freska hartzen;
Gain behera soginik
beitzait üdüritzen
Orhi gainen nizala agitzen...
Bena ez dira heben
bazterrak berdatzen,
txoriak kanthatzen!

Agur Xiberua...

NON GERATZEN DEN DENBORA
Jon Maia/Mikel Urdangarin

Gure baitango lurraldetan
non geratzen den denbora
non ez dagoen arnas biderik
non ez goazen inora
non oihukatzen
hurbiltzen garen
erraldoiaren ondora
igo nazazu nire mendira
zure gailurretik gora

egunez zu bizitzera
arimak zenbatzera
urrun nabigatzera
elur gazietan

igo nazazu nire mendira
aurki dezadan bidea
askatu nadin zure loturaz
behar dezadan airea
ez nadin izan jainko lurtiarra
bai ezinen bidaidea
igo nazazu nire mendira
zu ez bait zara nirea

egunez zu bizitzera
azken mugen hertzera
lainoen agurtzera
elur gazietan.

ITSASOARI BEGIRA
Jon Maia/ B. Lertxundi

Zazpi mendeko
gauean gaude.
Gure lore eta sasi,
Irrintzi, oihu, ele ta ulu,
Marmario ta garrasi,
Haize, enbata,
brisa, galerna,
Gaur garbi, bihar nahasi,
Xake taularen zuri beltzetan
arrats gozo egun gazi.
Ai itsasorik ez bageneuka
Zeri so negarrez hasi.

Gure zuhaitza landatu dugu
amildegi muturrean,
adarrak daude
ertzetik haruntz;
sustraiak, berriz, lurrean,
bihotz esteak estu helduaz
esku baten ahurrean.
Bertso berriak jartzera noa
bere indar laburrean
nola malko bat isuritzen den
itsasoaren aurrean.

Nola haizea ur azalean
Eguzkiaren irteeran.
Nola kaioak zorabioan
Itsas enbata bezperan,
Pentsatzen nago
gu ere berdin
Ibiltzen ez ote geran.
Susmoa daukat patua bera
Itsasoa ez ote dan,
Libre ta zabal dugu aurrean
Baina ezin dugu edan.

Heldu herria sustraietatik
Tira eta gora jaso.
Jarri Kantauri aurrean eta
Mantendu zutik hari so,
Ispilu hortan ikus gaitezen
Herriz herri, auzoz auzo.
Zauriak gatzez erre ditzagun,
Malkoak urez eraso.
Sano ta libre irla txiki bat
Salbatuko da akaso.

Azken arnasa eman nahi nuke,
Eguna hiltzen ari da.
Azken arnasa eman nahi nuke,
Bertsoak entzuten dira.
Azken arnasa eman nahi nuke,
Kantari nator herrira.
Azken arnasa ematen degu
Eguzkitik eguzkira.
Azken arnasa eman nahi nuke
Itsasoari begira.

Azken arnasa ematen degu
Eguzkitik eguzkira.
Azken arnasa
eman nahi nuke
Itsasoari begira (bis)

ITURINGO AROTZA
Herrikoa

Ituringo arotza,
Erramun Joakin,
haserre omen zaude
zeren degun jakin.
Santuek ez laitekez
fiatu zurekin
San Kritobal urtuta
joaliak egin.

Arotzak erran dio
bere andreari:
Urtu behar dinagu,
ekarran santu hori!
Gizona nora zoaz,
bekatu da hori!
Etzionagu erranen
sekula nihori.

Ituringo garaile
Ramuntxo Joakin
haserre omen zira
zeren dudan jakin.
Konfesa zaitez ongi
erretoarekin;
ez dute zer fidatu
Santuek zurekin.

Kobrezko Santurikan
inon bazarete,
egoten al zarete
hemendik aparte;
baldin arotz horiek
jakiten badute,
joaliak egiteko
urtuko zaituzte.

LILI BAT IKUSI DUT
Herrikoa

Lili bat ikusi dut
baratze batean
desiratzen nahi nuke
nere sahetzean
lorea ez du galtzen
udan ez neguan
haren parerik ez da
bertze bat munduan

Deliberatu nuen
gau batez joaitea,
lili arraro haren
eskura hartzea
ez bainuen pentsatzen
beiratzen zutela,
gau hartan uste nuen
han galtzen nintzela

Etsenplu bat nahi dut
eman munduari
eta partikularki
jende gazteari;
gauaz ibiltzen dena
ez da zuhur ari;
ni begiraturen naiz
ezkerrak jaunari.

MUNDURAT...
Xalbador/b. Lertxundi

Ama, nola zure belaunetan
nindadukazun denboran,
utz nezazu zure bularrean
burua pausa dezadan;
ene bihotzak zer sendi duen
nahi baiterautzut erran,
zure ezpain sakratuetarik
ikasi nuen mintzairan.

Ene deia amodioaren
bitartez zinuen entzun,
eta gero oinazen erdian
mundurat eman ninduzun;
biziaren grazia lehenik,
gero hoinbertze maitasun,
berant jakin dut, ama maitea,
zendako eman dautasun.

Adierazi zerautanean
odolak bere mintzoa,
berriz gogoratu zitzerautan,
o ama, zure altzoa;
bai ta zure bularretik hartu
esne on haren gozoa,
orduz geroztik zurea naukan
ene izaite osoa.

MAITE ZAITUT
Pirritx eta Porrotx

Maite zaitut,
maite- maite zaitut;
pila, pila, pila patata
tortilla!
Maite zaitut.
Maite-maite zaitut,
ilargiraino eta buelta
maite zaitut. (Bis)

Koloretako ametsak
esna nagoenean
eta ezin loak hartu
gaua iristen denean.
Saltoka hasita hegan
egiteko gogoa,
nire bihotza taupaka
aire ertzera doa.

Elkarrekin hankaz gora
buruz behera jartzean,
tunelean sartu eta
irrintzika hastean,
bitxiloreekin pultsera
egin dizudanean,
begietara begira
hauxe nahi dizut esan:

Maite zaitut, ...(Bis).

ZAZPIAK OIHAL BATETIK
Otaño/Xalbardin/ Unsain

Mundu guztiak aditutzen du
Euskaldunaren negarra
Alde batera nahiago nuke
Ez Banintz hemengotarra

Enpeinatzea ez bada libre,
alferrik dugu indarra.
Hau da txoria gari tartean
Goseak Egon beharra.

Antzerki huntan
lau pertsonaia
Ta jokolari bakarra
Arbolak berak erakusten du
Ostoa eta adarra

Enpeinatzea.....

Sutan pizturik darrai oraindik
Sugai berriz lengo gerra
Oharkabean ez zen mintzatu
Txirrita poeta zarra.

Enpeinatzea.....

Zazpi ahizparen
gai den oihala
Ebakirikan erditik
Alde batera hiru soineko
utzirikan lau besterik

Guraiziakin bereizi arren
Bakoitza bere aldetik
Ezagutzen da jantzi girela
Zazpiak oihal batetik

Oihal bera da gure jantzia
Sortu gintuzten unetik,
Ez du munduak
kemenik sortu
kentzeko gure soinetik.

Guraiziakin ……

ABERTZALEA JAIO NAIZ
Herrikoa/Italiar herrikoa

Abertzalea ni jaio nintzen
Obelatxao, belatxao, belatxao
txao txao
Abertzalea ni jaio nintzen
Ta abertzalea hilgo naz.

Egun batean, goiz goizetikan
Obelatxao, belat…..
Egun batean, goiz goizetikan
Etsaian aurka joan nintzen

Eta burrukan hiltzen banaute
Obelatxao….
Eta burrukan hiltzen banaute
Hartu zuk nire fusila

LABEXOMORRO
Herrikoa/Mexikar herrikoa

Labexomorrok labexomorrok
ezin daula ibili
faltan dauela
ez dekolako
erreteko mirenjonik.

KOBLAKARI
Pier Paul Berzaiz

Zillar ezpata idüri
Oihanean goizango ekia
Bardin gure artean sartzen
Poeten begia.
Bihotzean egiten dizü
Ezin elkizko zauria
Irustarzün ütürria.

Koblakari, koblakari
denek zure bihotzean nahi
koblakari, koblakari
zütaz gütüzü egarri.

Ama deitzen den bezala
Korpitza hozten senditzean
Zure berotarzünera
Jin nüzü bizitzean
Bizientako amodioaz
Zük biotza gainditzean
Sü hartzen deikü güzian.

Koblalari, koblakari…….

Orhi mendi bera düzü
Hiru erregeen aitzinean
Lotza gabe txütik zira
Frantzi eta Españian
Zure lana hegaltatürik
Betikoz zerü lürretan
Euskal herri Güzian.

Koblakari, koblakari………

Bizi denboran beitzüan
Aterbüa etxe batetan
Hilik ere poeta
Bizi hainitxetan
Heriotza lotsagarriak
kentzen badü izaitea
ez dateke zure kasüa

Koblakari, koblakari…

EGIDXE DA
Bermio herrikoa

Egidxe da, egidxe da,
nik ikusi dodalako
Egidxe da, egidxe da,
porque lo he visto yo.

Bermioko portuan, goizeko
ordu bidxetan (bis)
Ez da besterik entzuten,
Ez da besterik entzuten,
Ez da besterik entzuten, TXO
Atrakaizu batela.

Egidxe da, egidxe da…..

Lau aeroplano pasata, bat
itsasora jausi (bis)
Ekarri, Sebastianak
Ekarri, Sebastianak
Ekarri, Sebastianak
Artzan enkaileta itzi

Egidxe da, egidxe da…….

El aviador de Kakaapur
también quería volar (bis)
Etzo itzi, trinkadoriak
Etzo itzi, trinkadoriak
Etzo itzi, trinkadoriak
Barrabaskeri in barik.

Egidxe da, egidxe da…..

Abuztuen amabidxen, Franco
Bermiora etorri (bis)
Ekarri katxalotia
Ekarri katxalotia
Ekarri katxalotia PUF
Artzan usteldutа itzi

Egidxe da, egidxe da…..

EUSKAL FAUNA
Asier Bidaurrazaga/
Kubatar Herrikoa

Euskaldun petoa naiz ni
Txorierri handikoa
euskeraz jakin badakit
amak emonda altzoan
baina lagunekaz beti
erdera dut nik ahoan

Eistazu euskeraz,
euskaldun eistazu
euskeraz
eistazu euskeraz
euskaldun eistazu
euskeraz

Kanpotik ziren etorri
aspaldian gurasoak
euskaldun nahi ninduten ta
sartu nintzen ikastolan
erdera nahiko genuen
euskeraz gu nora joan?

Eistazu euskeraz,….

Abertzale sutsu gara
euskera dugu etxekoa
etxeko txikiei baina

erderaz oso-osoan
asaba za(ha)rren altxorra
nork jasoko du ba holan?

Eistazu euskeraz,.....

Halantxe behar zuen ta
sortu genuen Altzora
mundu honetatik zorrik
nahi ez baduzu eroan
elkartu gugana eta
euskeraz bete ahoa

Eistazu euskeraz,.....

KANTUZ
POCO/A. Duhalde/Akelarre

Kantuz daramazkit nik gauak
Kantuarekin,
Goxatzen naure penak.
Kantuz kanpotik,
negarrez barrutik,
Kantuarekin
Ahazten ditut grinak nik.

Kantuz daramat bizia,
Ahazteko hiltzia.
Neuretzat kantuan dago
Fortuna guzia.
Eta kantuz kantu,
Noa botatuz neure hazia.

Batzuetan triste,
bestetan hasarre,
zuen aurrean
kantatzea dut lege.
Nahiz eta gogorik ez izan,
zuen aurrean
sartu behar dut martxa.

Kantuz daramat bizia,
Ahazteko hiltzia.
Neuretzat kantuan dago
Fortuna guzia.
Eta kantuz kantu,
Noa botatuz neure hazia

GURE ESKU DAGO
Kirmen Uribe/

Kanta zaharrak dioen bezala,
ura bere bidean doa.
Goi mendietako ur xirripa
kanpo emariz ibaitu da.

Mugarik ez jarri urei.
Utzi libre beheratzen,
milaka urtez egin legez.

Guk ez dugu aldarri egiteko
heroi edo konkistarik.
Borondateak elkartzen gaitu,
herri izan nahiak.

Hormak eta harresiak
ez ditugu maite,
elkarrekin bizi nahi dugu,
soilik.
Ez dugu beste inor
mendean hartu nahi,
etorkizuna hautatu,
ez besterik. (bis)

Har dezagun bidea,
gure esku dago ta.
Milaka lagun oinez,
eskutik oratuta.
Jende zoriontsua,
herri libre batean.
Herri libre bateannnnnnn!

Rosa, Arane, Omar, Izaro,
Maddi, Carlos, Antoine...

Har dezagun bidea, ...

Hiritar desberdinak
ametsak ditu biltzen:
etorkin, arrantzale,
langabetu, ikasle,
nekazari, langile,
musikari, idazle,
erretiratu, umeeeeee.

Garazi, Jabier, Bittore, Lur,
Amaia, Gloria, Mamadu...

Har dezagun bidea... (bis)
Hormak eta ...(bis)

GALDETZEN
Jokin Urain/Patxi Saiz

Gauari nahi nioke
galdetu zergaitik ez dituen
ene penak egunaren
argia bezala aienatzen.
Izarrei nahi nieke
galdetu zergaitik ez duten
ene bihotza gauaren
iluna bezala aalaitzen.
Haizeari nahi nioke
galdetu zergaitik maitearen
laztanak pago hosto igarrak
bezala ekartzen.

Euriari nahi nioke
galdetu zergaitik ez duen
ene egarria zelai lehorrarena
bezala asetzen.
Etsaiari nahi nioke
galdetu zergaitik ez duen
herriaren garraisia
indarkeri
ankerraren ordez aditu
nahi (bis).
Ooooo! Ooooo! Ooooo!

GOIZEAN GOIZIK
Herrikoa/B. Lertxundi

Goizean goiz jeikirik,
argia gaberik,
urera joan ninduzun
pegarra harturik,
lai, larai, larai.

Jaun xapeldun gazte bat
jin zautan ondotik,
heia nahi nuenez
urera lagunik, **lai....**

Nik ez nuela nahi
urera lagunik,
aita beha zagola
salako leihotik, **lai...**

Aita beha zagola,
ezetz errangatik,
pegarra joan zerautan
besotik harturik, **lai...**

Urera ginenian,
biak buruz buru,
galdegin zautan ere:
-"Zonbat urthe duzu?"

-"Hamasei... hamazazpi
orain'ez konplitu
zurekin ezkontzeko
gaztexegi nuzu, **lai...**

Etxerat itzultzeko
nik dutan beldurra,
ez jakin nola pentsa
amari gezurra!", **lai...**

-"Neskatxa, nahi duzu
nik erakuts zuri
etxerat etortzean
zer erran amari?", **lai..**

"Urzo xuri pollit bat,
gabaz dabilana,
hark ura zikindurik,
egotu naiz ama.", **lai...**

-"Dakigunaz geroztik
zer erran amari,
dugun pegarra pausa,
gaitezen liberti (bis)."

BADIRA HIRU ASTE
Mikel Urdangarin

iskin hontatik idazten dizut
azken aldian bezala
egia da bai sasoi honetan
hotza egiten duela
**neska gazte bat ezagutu dut
hiru aste badirela
esango nuke bere begiek
erraz sorgindu nautela**

azken bidai hau ez duzu izan
etxe ondotik ihesa
nigandik hurrun aurkitu arren
hara itzultzeko ametsa
**zuekin beti oroitzen banaiz
ahaztu naizenik ez pentsa
sentimenduak esaten baina
ez da hain gauza erreza**

orain goizean pozik hartzen dut
mendebalderako trena
harrizko zoru ahaztuetan
biderik eta zaharrena
**bizitzak sarri erakusten du
badena eta ez dena
inoiz latz hartu banindu ere
gaur gozo hartu nauena**

lantzean baina, egun luzeetan
bihotza egoten da triste
agindutako promesa hura
ezin kunplidu nezake
**"loriak udan"
kantatzen baitut,
inoiz gutxitan ez uste,
letrak ez ditut
oraindik ahaztu,
akordatzen naiz hainbeste**

LANGABEAK
X. Amuriza/A.Duhalde

**Lana,lana,
non zegok lana?
Eramana ala jana
al duk dena nagusi jauna?
Non zegok, non zegok
lana?**

Beharren nuela kendu
didate lana,
denbora utzi didate
nekez doana.
Loa ere gutxitu zait
hau panorama
denbora hutsa daukadana.

Ene aita, nik ez daukat
zure saminik
zuk galdua zer den ere
ez bait dakit nik.
Jakiteko ere ez dut
itxaropenik
nor da hau iraun dezakenik?

Lana, lana,.....

Ene seme, hire aita
duk okerrago
hik bederen baduk kemen
borrokarako.
Ni ez bait naiz txatar ere
poztu beharko
biltzen banaute zabortzako.

Ene aita, heldu zaigu
epai gordina
zuri etsipena eta niri ezina.
Ni naiz zulo beltza eta
zu hondakina
Adio Santa krabelina.

Lana, lana,.....

HAMABOST 16 URTE
Juan Garate (Maltzeta)

Hamabost hamasei urte (bis)
Neskatzak zer dakizute?
Erromeria buruan
Beste gauzik ez dezute

Hemezortzi hemeretzi (bis)
Ezin ondo erakutzi
Festarako beti gertu
Lanerako gogo gutxi

Hoitairu hoitalaua (bis)
beste gauza bat buruan
Mutil ta zein modukoa
Nun edo zer ote dauan

Hogetazazpi-zortzi urte (bis)
Nobiorik ba al dezute
Neskatzak orain saiatu
Aurrean jai daukazute

Hogeitamaika-hamabiki (bis)
Hortan dudarik ez egin,
Datorrena datorrela
Konforme edozeiñekin

TXORIA TXORI
J. Artze/M. Laboa

Hegoak ebaki banizkio
Neria izango zen
Ez zuen alde egingo **(bis)**

Bainan horrela
Ez zen gehiago
txoria izango **(bis)**

eta nik txoria
nuen maite **(bis)**

BIZIRIK GAUDELAKO
Brendan Graham/Olatz Zugasti

Nahiago nuke banitu
hegal bizkor zabalak
joan ahal izateko
aise zure ondora
ta belarrira xamurki esan
nik maite zaitudala
piztu dizudan suziak
zugan iraun dezala.

Kantu hau nahi dizut
eman zuri herria
gu gara iturri zaharreko
ur berria.

Oraindik azi asko dut
zuregan landatzeko
esan ez ditudan hainbat
olerki eta asmo
elkar lotzen gaituzten sokak
ez dira apurtuko
bizirik gauden artean
bizirik gaudelako.

Kantu hau nahi dizut ...

Ahal zutena eman zidaten
ta erakutsi itzultzen
haundia banago ere
zure albora etortzen
ez baititu semeak amak
inoiz alboratzen
ni zurea zu nerea
beti izan gaitezen.

Kantu hau nahi dizut ....

564
Hertzainak

Hotz amaigabe bat
baino latzago
Ta urteak egun baino geiho
Bostehun eta
hirurogeitalau ohe huts
Samiña zabaltzen

Batzuen ustez ordaintzen
Dagokien zigorra
Maite dutenentzat berriz
Askatasun haizea
Baina hori nork ulertarazi
Etxean zai bakarrik denari
Bostehun eta
hirurogeitalau taupada
Gehiago gure bihotzean.

AITORMENA
HERTZAINAK

Ez dira betiko garai onenak
azken finean gizaki
hutsak gara.
Barearen ostean
dator ekaitza.
Udaberri berririk ez guretzat.
Denborak aurrera etengabian
ta orain ezin eutsi
izan giñana,
rutinaren morroiak
bihurtu gara,
laztana lehen baino
lehen aska gaitezan.

Ohartu gabe arrunt
bilakatuta,
Ohartu gabe heldu
gara mugara,
Mundua jautsi zaigu gainera
maitia lehen baino lehen
aska gaitezan.

Ez dakigu non dagoen
hoberena
Bila dezagun beste lekuetan

Bai, zin dagizut
ez dizudala inoiz gezurrik
esan eta
zaude zihur
ezin izango zaitudala
ahaztu inoiz,
aitortzen dut
izan zarela ene bizitzaren
onena,
baina orain,
maitia lehen baino
lehen aska gaitezan (bis).

arrigorriaga
UDALA - AYUNTAMIENTO

arrigorriaga.eus